


**Udal Hauteskundeak 2015:  
Alkategai guztiekin solasean**

**Juanjo Lertzundiren proposamena:  
21 egun kexatu gabe igarotzea**

**Igoerarekin amesten dute  
eskubaloiko senior neskek**

# noaua



## Sagardoia prest da

# Otar-Goxo

Elikagaiak

**OTAR-GOXOKO PRODUKTUAK  
24 ORDUZ ESKURAGARRI!!**

Orain 24 orduz produktu asko izango dituzue gure makina berrian eskuragarri:  
Frijituak, Lasagnak, pizzak, txarkuteriko produktuak, postreak, harategiko berezitasunak, petxugak, hanburgesak, xolomoa..... eta abar!

**BERRIA!**

**24H ZERBITZUA**



Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

**188.000 €** tik

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea  
20009 Donostia

E: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albiste iruditan

# Erdigunea oinezkoena izango da Sagardo Egunean

Urtero moduan, zenbait kale itxita izango dira autoentzat maiatzaren 17ko Sagardo Egunean. Donostia aldetik N-634 errepidetik Usurbilerako Oxtapeko sarbidea goizeko 10:00ak aldera, egun osorako itxiko du ibilgailuentzat Udaltzaingoak. Honenbestez, Donostiatik datorren Lurraldebus zerbitzuko autobusak Atxegalde parean geratuko dira. Donostia alderako autobusa hartu behar baduzue, San Inazioko errotonda ondoko ohiko geltokian geratuko da. Kaxkoan ere, urtero moduan, Mikel Laboa plaza inguruko kaleak autoen joan etorrirako itxita aurkituko dituzue Sagardo Egunean.



Oxtapeko sarbidea goizeko 10:00ak aldera itxiko dute ibilgailuentzat.

## Laburrean

### Udajolaseko izen emate guztiak, onartuak

Apuntatu diren haur guztiek beraz, uztailearen 6tik 30era egingo diren udaleku irekietan parte hartzeko aukera izango dute. Argibide gehiago, ekainaren 10erako 17:00etan Potxoenean deitu dugun bileran emango dira.

### Ate irekien eguna Lanbide Eskolan

Larunbat honetan, maiatzaren 16an, 11:00etatik 13:00etara Lanbide Eskolako instalakuntzak eta bertako hezkuntza proiektua ezagutzeko aukera. Parte hartu nahi duenak, aurrez deitu dezala: 943364600 / eskola@lhusurbil.eus / lhusurbil.eus

### Ostegun honetan, prebentzio tailerra

#Kilometroak15 ez da soilik jai-egun bat antolatzeko gunea. Hausnarketa eragiteko txoko ere bada. Izar Arregi, Lukene Lizaso eta Felix Zubia arituko dira prebentzioaren inguruan solasean. Ostegun honetan Potxoenean, 18:00etan hasita.

# noaua

Kultur Elkarte

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpuru.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpuru, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arnalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## Imanol Ubeda

L arunbatean bete ziren 70 urte III. Reicheko armada errenditu zela. "Errenditze harekin, munduak bukatutzat eman zuen nazionalsozialismoaren amesgaiztoa. Lau urteko okupazioa ekarri zion gerra hark, besteak beste, Euskal Herriari", hala zekarren efemeridea Berria egunkariak.

Periodikua leitzuz ilustratzen ari nintzela, duela hilabete bisitatu genuen erakusketa bat etorri zitzaidan burura. Cométe erresistentzia sareari buruzkoa, San Telmo museoan aurki daitekeena oraindik. Sare honetan parte hartu zuten herritarrak gogora ekartzea du helburu erakusketak, bizirik dirautenen eta fami-

## Cométe sarea eta *Historia irakaslea*

liartekoen hitzak ere entzun daitezke bertan ipini dituzten bideoetan.

Elkartasun sare klandestino hari esker, Euskal Herria iparretik hegoaldera zeharkatu eta ihes egiten zuten aliatuen hegazkinetako pilotuek. 1941 eta 1944 urteen artean, Cométe erakundeak 800 lagunei babesa eta ihesbidea eman zien. 3.000 pertsona anonimok parte hartu zuten sare honetan, tartean, euskaldun jendeak. Eta horietako asko emakumezkoak ziren. Elkartasunak ezkutuan eta bizikleta gainean bidaiatzen zuen garaia zen.

Donostian ginenez, Giza Eskubi-deen Zinemaldira hurbildu ginen. *La profesora de historia* (Les Heritiers) filmerako sarrerak geratzen ziren eta

Victoria Eugenia Antzokira sartu ginen, zer ikusiko genuen ondotxo jakin gabe. Filmak II. Mundu Gerrara eraman gintuen berriro ere. Kasualitateak hala nahi izan zuen.

Frantziako institutu bateko Historiako irakasleari gela zaila egokitu zaio. Motibazio falta izugarria dute ikasleek, materialista hutsak dira (halako gizartea elikatzen ari gara) eta ez dute euren zilborretik haratago ikusteko senarik.

Memoria ariketa lanetan Frantzia aurreratuago dabilta nonbait, eta Erresistentziari eta Deportazioari buruzko lehiaketa batean emango du izena Historia irakasleak. Nazien kontzentrazio esparrutik bizirik irten zen gizon baten bisita jasoko dute gelan.

Eta horrek eragin handia izango du ikasleengan.

II. Mundu Gerraren aitzakian, oso gureak diren gaitzak ukitzen ditu pelikulak. Arrazismoa, erlijio arteko talka, bazterketa soziala, inmigratioa... Eta guztiaren gainetik, mundu justuago bat posible dela sinestarazi nahi digun irakasle bat nabarmentzen da. Historia irakaslea. Emakumea, hau ere.

Filma ez da oso ona. Komertziala aukeran. Baina nerabe bat izango banu etxean, zine aretora eramango nuke *La profesora de historia* ikustera. SADEk dio laster programatuko dutela Donostialdeko zinema aretoetan. Esana gera bedi.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

# BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUA!ko bazkideen artean bi liburu ditugu zozketatzeko. Email bat idatzi [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera. Maiatzaren 29an ostirala jakinaraziko ditugu irabazleak [noaua.eus](http://noaua.eus) orria

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

# Udal diru-laguntzak, alegazio epean

Ursurbilgo Udalak maiatzaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen erabaki proposamenari iradokizunak egiteko epea, maiatzaren 16ra artekoa izango da.

Kultura, kirola, ingurumena, nekazaritza eta gizarte zerbitzuetako diru-laguntza deialdiara aurkeztu diren eskaerei emandako erantzuna, eta banatuko dituen diru kopuruen berri ematen du Udalak, aipatu aldizkarian:

## Kultura

Diru-poltsa potoloena. 22 diru-laguntza eskaera aurkeztu dituzte, besteak beste, San Praixku Guraso Elkarteak, Antxomolantxak, Dantza Taldeak, Einean Guraso Elkarteak, Etumeta AEK euskaltegiak, Ziortza Gazte Elkarteak, Kantu Taldeak, Irriu abesbatzak, NOAUA!k, Organoaren Lagunak, Bihurri Txiki ludotekak, Nafartarrek, Jexux Artze Kultur Elkarteak, Santuenea Kultur Elkarteak... Kultur egitasmoak 79.965,04 euroz laguntzea onartu du Udaleko diru-laguntzen batzorde orokorrak.



Alegazioak aurkezteko epea maiatzaren 16an amaituko da.

## Kirola

12 taldek aurkeztu dituzte udal diru-laguntza eskaerak. Guztira 45.000 euro banatuko ditu Udalak, Tximeleta, Andatza MKT, Baxurde Txiki UTT, Buruntzazpi, Beterri Sub, Usurbil FT, Usurbil JC, Makax, Pagazpe, Usurbil KE, Zubieta Lantzen Txirindularitza eta Zubieta PT taldeen artean.

## Gizarte Zerbitzuak

15 elkarte aurkeztu dira deialdira. 11.598,18 euro jasoko dituzte onuradunek. Besteak beste, Atzegi, Pausoka Elkarte, Minbiziaren aurkako elkarte, AGIFES, Bikarte, Or-

tzadar edota ALCER elkarteek.

## Nekazaritza

12 eskari bideratu dira. Norbakoak dira kasu gehienetan, eta Alkartasuna Kooperatiba. 10.000 euroko laguntza banatuko du Udalak, nekazaritza azpiegiturak eta baliabideak hobetzera edota formaziora.

## Ingurumena

7 eskari tramitatu dituzte norbanakoez gain, Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarteak edota Alkartasuna Kooperatibak. Guztien artean, 6.085,75 euroko laguntza banatzea erabaki du Udalak.

## Kontserbak, Errigoraren kanpaina berria

Nafarroa hegoaldeko euskalgin-tza lagundu eta bertan ekoiztako produktuen salmenta sustatzeko kanpaina berria antolatu du Errigora ekimenak. Kontserben salmenta bideratuko du asteotan. Kanpaina berri honetan parte hartzera animatzen dituzte herritarrak. Hiru ekoizleren sei produktu lote ezberdin erosteko aukera izango duzue.

### 6 kontserba lote aukeran

- Potxak (Pedro Luis): 720 ml-ko 12 poto. 34 euro.
- Orburuak (Maria Jesus): 720 ml-ko 12 poto. 41 euro.
- Pikillo piperrak (Iturri): 425 ml-ko 12 poto. 35 euro.
- Pikillo piper ekologikoak (Pedro Luis): 250 ml-ko 12 poto. 41 euro.
- Zainzuriak (Iturri): 425 ml-ko 10 lata. 30 euro.
- Barazki menestra (Maria Jesus): 720 ml-ko 12 poto. 36 euro.

### Eskaerak egiteko:

Epea: maiatzak 14-26.

Non: [errigora.eus](http://errigora.eus) atarian edo NOAUA!ko egoitzan, [usurbil@errigora.eus](mailto:usurbil@errigora.eus) edo 943 360 321.

Loteak NOAUA!n jasotzeko epea: ekainak 9-11.

Informazio gehiago: [errigora.eus](http://errigora.eus)

## Ika-Mika

### Argitu

Gipuzkoako herri batzuetan, nahiz eta etxeko hondakinen sortzea aurreko sistemaren antzekoa izan, sistema berriarekin zabortegira laurdena besterik ez da bidaltzen. Hau argi dago guztiontzat... Gipuzkoako oposizio politikoaren-tzako izan ezik.

Arrazoi ekonomiko garrantzitsuak, efizientzia eta aurrezpen energetikoa, ingurumenaren babesa eta bertakoen lanpostuen sortzea direla-eta, Catalunya 23 udalerrik bosgarren kontainerra kendu eta Atez-atekoa ezarri

dute 2014ean. Argumentu baliotsuak guztiontzat... Gipuzkoako oposizio politikoarentzako izan ezik.

Muga arrazionalak gainditu ostean, Gipuzkoan dagoen eztabaida bakarra ez datza funtsan, jarreraren baizik; ez da tekniko, jarrera politiko- etikazkoa baizik. Komunikabide batzuen neutralitate falta dela medio, analisi objektiboa eta zibikoa oso zaila egiten da, esentzia tekniko disolbatu egiten zaigu zarata eta letra-zopa artean. Honela, nahastea errazten da, hiritarren zentzu ona lainotuz...eta baita gure herrialdearen

aurrerapena ere.

Integrala den sistema eficiente batek, fermentagarria dena eta probetxuzkoa dena bereizi behar ditu, eta gainontzekoa "ezabatu", kostu ekonomiko eta ekologiko txikiarekin. Hau honela izanda, zenbatekoa da zabortegiaren faktura, hiritar eta urteko, Atez atekoa eta bosgarren kontainerra duten udalerrietan? European eta Catalunyan, datu hau erabakigarria da. 91kg materia organiko jasotzetik, 15kg jasotzera, zein da kosto ekologikoaren aldea,

pertsona eta urte bakoitzeko?... Honako hau ere, erabakigarria.

Komunikabideetara jotzen dute behin eta berriro, Atez atekoak kontainerren kostuak hiru aldiz biderkatzen dituela salatuz (TVC txostenaren interpretazio batean oinarrituz). Bere horretan jarraitzen dute, nahiz eta Atez atekoa duten udalerrietako zerbitzuberuek kontrakoa ziurtatu...eta, horrela, bost urtez. Beraien erantzuna beti ixiltasuna... eta horrela bost sei urteetan.

Julen Lizaso

# Ausartu, 21 egun kexatu gabe bizitzera

KEXARIK GABEKO MUGIMENDUA OSATU DU JUANJO LERTXUNDIK ETA 200 LAGUN BATU ZAIZKIO

**B**izi al gaitezke hiru astez, kritikatu edo kexatu gabe? Proba egiteko erronka bota digu Juanjo Lertxundi Azkue herritarak. Kexarik gabeko mugimendua edo esker oneko tribua osatzen dabil, abiatu berri duen egitasmoan. 200 lagun batu zaizkio, mundu hobe baten aldeko proiektu honetara. NOAUA!ri azaldu dio zertan datzan.

**Kexarik gabeko mugimendua sustatzen zabilta, nondik abiatu zenuen proiektua?**

**Juanjo Lertxundi Azkue:** 26 urte daramatzat pertonekin lan egiten. 22 urtez enpresa munduan lanean. Azken lau urteok yogan, meditazioan, terapia munduan. Denok nahi dugu osasun hobea goa, harreman eta lan aukera hobek. Baina sarritan ez dugu hobetzeko ezer egiten eta kexatzen eta errua besteei botatzen, kritikatzeko amaitzen dugu. Horatik sortu zitzaidan ideia.

**Zergatik gara hain kexatiak?**

Nahi dugun bizimodua izateko gai ez garela uste izaten dugu. Bi aukera ditugu; gure bizitzako protagonista edo ikuslea izatea. Erabakiak hartzeko eta porrot egiteko beldurra izaten dugu. Eta blokeatzen gara. Askotan kexak, kritikak eta erruak gainerakoei botatzeak, gauzak aurrera eramateko gure ausardia falta erakusten du.

**Aldatzen hasteko zer proposatzen diguzu?**



Juanjo Lertxundik sortu duen pultsera more bat jantzi eta hau da bete beharreko erronka: 21 egun kexarik egin gabe igarotzea.

## JUANJO LERTXUNDI

**“Garrantzitsuena ez da 21 eguneko erronka lortzea, bidaiatzeko gozatzea baizik, errudun sentitu gabe”**

Proiektuak hiru helburu ditu: kexarik gabeko pertsona bihurtzea, gure arreta arazoan ez, konponbidean jartzea eta hirugarrenik, jada martxan dagoen kexarik gabeko pertsonen mugimendua sortzea. Proiektua otsailean hasi zen eta une honetan jada 200 lagun daude.

**Mugimenduko kide izateko zer egin behar da?**

Proiektua aurkezteko hitzaldiak eskaintzen nabil. Gausartuzentroa.com atarian dator ekitaldi hauen informazioa. Hitzaldira doanak proiektua aurkeztu eta erronka onartuz gero, pultsera bat emango zaio doan.

**Zertan datza 21 eguneko erronka?**

Eskumuturrerako pultsera more bat ematen da. Pultsera jantzi eta 21 egun kexa eta kritikarik egin gabe igarotzean oinarritzen da. Ahotik ateratzen den kexa edo kritika bat egiten bada, pultsera eskumuturrez aldatu eta beste 21 egunez kexa eta kritikarik egin gabe egotean. Norbere burua ohitura berri bat sortzen joa-

tean oinarritzen da. Berez teknika sinplea da, baina erronka betetzea ez da batere erraza. Garrantzitsuena ez da 21 eguneko erronka lortzea, bidaiatzeko gozatzea baizik, errudun sentitu gabe. Proiektuaren jomuga; mundu hobea goa egitea da. Ni pertsona bezala hobetzen banaiz, mundua ere hobetzen doa.

**Pultseraren kolorea apropos aukeraturikoa da?**

Kolore morekoa da. Kolore morea, terapia munduan, aldaketaren edo transformazioaren kolorea da. Pultsera hau unibertsala da, edonork eraman dezake. Proiektu honetan denek dute lekua.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# “Ausartu zaitez liburuaren jarraipena da hau”

200 lagun batu dituzu. Zer diote lagunok?


**Juanjo Lertxundi.** Proiektua gustura hartzen dute. Badituz hainbat lekukotza, ez dela batera erraza diotenak. Konturatzen dira inguruko jendea eta bere burua beti kritikatzeko ari direla. Jolas modura hartu dute, baina jabetzen dira lasaiago daudela, harremanak hobeto direla eta beti energia guztia konponbidean jartzen saiatzen direla.

**Arreta jartzea giltzarrietako bat izango da?**

Bai pentsamenduetan eta ahotik ateratzen diren hitzetan. Neure ustez, komunikazio toxiko eta suntsizaillearen errotzen gara. Komunikazio eraikitzailearen igarotzea da kontua. Kritika eta kexen atzean, zerbaiten onarpen falta dago. Sufrimenduen arrazoi nagusia, ez ditugula gauzak eta pertsonak diren moduan onartzen. Sufritzen ari garenean geure buruari galde-tu, ia zer den onartzen ez duguna. Geure barrura begiratuta erantzuna etortzen da. Geure barrura umiltasunez begiratzeko ausardia behar da, errudun sentitu gabe.

**Santueneko yoga taldea proiektuan izango duzu. Jarraipena egiteko aukera ederra?**

Santueneko yogako taldean eman nuen lehen hitzaldia. Erronka bota nienetik hilabetera, bakoitzak bere esperientzia azaldu zuen. Oso aberasgarria izan zen. Oraindik inork ez du lortu erronka. Baina jabetu



“Ausartu zaitez” liburuan jaso zuena praktikara eramatea, hori da Juanjo Lertxundiren helburua.

## JUANJO LERTXUNDI

**“Oraingoz inork ez du lortu erronka. Baina jabetu dira hitz egin baino lehenago, aldatzeko aukera dutela”**

dira hitz egin baino lehenago, gelditu eta aldatzeko aukera dutela. Jolas moduan hartu

dute, erruduntasun sentimendurik gabe.

**Duela 3 urte kaleratu zenuen “Ausartu zaitez” liburua ere lagungarri izango al da?**

Liburuaren jarraipena da hau. Liburua ezagutzak hartzeko, eta egitasmo hau liburuan jartzen duena praktikara eramateko.

**21 eguneko hau zerbaiten hasiera da?**

Bizitza osorako abiapuntua. 21 eguneko erronka bizitza osorako da, kezarik gabeko pertsona bihurtu arte. Ez da erraza baina posible da.

## Topaketak

Hilean behin Donostiako Gausartu zentroan eta Santueneko yoga ikastaroa ematen den lekuan, kezarik gabeko mugimenduari loturiko topaketak antolatuko ditu Juanjo Lertxundi herritarrak. Egitasmoa ezagutu, proiektuan parte hartzen hasi eta jada egitasmoan murgildu direnek, esperientziak partekatzeko aukera izango dute.

## Informazio gehiago:

gausartuzentroa.com

## Aurkezpen saioak

- Maiatzak 21 osteguna. Arratsaldeko 18:30ean Santuenean, euskarazko saioa.
- Maiatzak 28 osteguna. Arratsaldeko 18:30ean Santuenean, erdarazko saioa.

Hitzaldietara doanak pultsera doan jasoko du.



Pultsera hau dagoeneko 200 lagunek daramate.

**USURBIL AUTOAK**  
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SÁLMENTA

**Ford**

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

**zerbitzu ofiziala**  
Zumartegi industrialdea

**943 36 10 79**

**LOGOPEDIA**  
Haurrak / Nerabeak / Helduak  
**TERAPIA MIOFUNZIONALA**

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

**Aurreko hitzordua: 635 701 374**



## SANTUENEA

JON ETXABE

### Udaberriko soinu-banda

**D**ida Gaztea! Egunon koadrila, goizeko zortziak ditugu!- Berriro berandu zebilen Ane. Txxxxxxx- Dutzako ura berotzen zen birtartean erlojuaren aurkako erabaki bat hartu behar zuen: zer jantzi. Urteetan zehar temperatura eta haizea bezalako faktore klimatologikoetan oinarrituta garatu zuen sen zorrotzak ez zion ezertarako balio aste honetan zehar; etengabeko mehatxu bat zirudien eguraldiak: hotzean nahi eurian hondoratuko zela zirudien eguneroko sargoria uda egun peto petoan amaitzen zen beti. "Eramazu txaketa fin bat eta kitto!"- Amak bai jakin! Armairuaren hondotik udako soineko bat berreskuratu eta kalera irten zen. Txio-txio-txio- Solasaldi iraunkor eta bizian, txoriek ongietorria ematen zieten lehen eguzki printz epelei -Atxis!- eta hala egiten zuen bere bizilagun Hilariok, tabernako terrazan eserita, azkenaldian hedatu zen alergia goiztiarrarekin sufrirituz. Krxxxx- Mandarina lotsatia biluzten zuen heinean -ttap-ttap-ttap- gurutzatzen zituen mendizaleen zakur leratsuen oinatzak eta Aneren urrats lokartuak elkarrengandik urruntzen ziren erritmo parekatuan. Tuuuu!- errailak zeharkatu bezain laster trenak bere iritsiera ohartarazi zuen, eta Anek, beste behin, eguzkiaren beroa isalatzen zion bideko asfalto lau berria eskertu zuen, hatsanka trenean sartu eta atek itxi zirenean- pi, pi, pi!



## AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

### Beharrezkoa?

**Z**uen aurrean duzuen argazkiari begiradaxo bat ematen badiozue, ikusiko duzue gure eliza berriaren sarrera aldamiotz oztopatua dagoela. Egoera txarrean omen dago eta horregatik ez da elizkizunik eskaintzen bertan. Fedea aspaldi galdua dugunok ez dugu faltan botatzen, baina egia da ere askorentzat beharrezkoa dela eliza hori ahal bezain pronto eraberritzea, ez baita oso eroso Usurbilera joan etorrian ibiltzea. Ez daukat informazio askorik ez lanak noiz hasiko diren ezta konponketa nork ordainduko duen ere, herritarrek edo Gotzaindegiak.

Rouco Varela Kardinalaren etxe eraberritzeak 500.000 mila euroko gastua suposatu omen dio elizari. Hau entzun ostean ez dakit nik Aginagako elizaren konponketarako dirurik jarriko duen gure Gotzaindegiak. Soberan?

Beste argazkian azaltzen den panel hori herriko sarreran dago. Baina ez du Aginaga aipatu ere egiten, borondate pixka bat izan ezkeron denon gustukoa egitea ez da batere zaila, orain dagoen bezala harrokeria kutsu bat ikusten diot kartelari, Aginaga Euskal Herriaren barruan ere bai baitago, beraz, adaketa txiki bat ez litzaiokoe gaizki etorriko.



## KALEBERRI

MADDI ZALDUA

### Atzera kontuan

**E**saten ere ez dakit noiztik ari garen atzera kontuan. Duela hilabete gutxienez bai. Gogo betez egiten diogu harrera maiatzeko azken aurreko igandeari, Usurbilen. Aurtengoan, hilabeteko hirugarrenean ospatuko dugu XXXIV. Usurbilgo Sagardo eguna. Egun polit bezain berezia. Esatera ausartuko naiz, herriko festak baino bereziagoa dela, niretzat, egun hau. Goizean goiz, lan talde boluntarioak, herriko dema-plaza apaindu, dena prestatu eta hamaika eta erdiak aldera, gure lehen tragoa edari kuttunari. Hiru ordu izaten ditugu, bazkal ordura arte, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko sagardotegietako sagardoa dastatu eta gustukoena aukeratzeko.

Baina eguerditik aurrera ere, festak ez du etenik izaten. Sagardo dastaketa amaitu eta arratsaldean Elektro Patxarangaren erritmora dantzatzeko aukera izango dugu aurten, herriko kaleetan zehar. Hortik aurrerakoak, norberaren esku, gaua ere luze izaten da, normalean!

Baina aurten, bezperatik izango da zertaz gozatu. Larunbat honetan, iluntzeko 19:00etan "Aamen Bea, gure sagardotegiya" antzezlan estreinatuko baitute Sutegin.

Desiratutako asteburua datorkigu beraz, oraingoan.

Behar bezala goza dezagula.

Topa!





**Q 2015.**

**UDAL ETA FORU  
HAUTESKUNDEAK**

*gehigarri berezia*

**Alkatetzarako hautagaiekin solasean**


# Lau zerrenda-buru, aginte-makil bakarra

Udal Hauteskundeek berebiziko garrantzia dute. Hautagaiak bezain adierazgarriak dira alderdien hautes-programak. Eta hori egingo dugu NOAUA! astekarrian. Alkategaien adierazpenak batu ditugu aste honetan, eta programa elektoralen berri emango dugu hurrengoan.

## 2011n sei zerrenda, 2015ean lau

Sei hautes-zerrenda aurkeztu ziren duela lau urteko Udal Hauteskundeetan: PP, PSE-EE, EAJ-PNV, Aralar, Hamaikabat eta Bildu.

Oraingoan, lau dira aukeran bozka daitezkeen zerrendak: PP, PSE-EE, EAJ-PNV eta EHBildu. Bitxia, beste herri batzuetan markak eta aukerak ugaltu egin direnean.



Udal Hauteskunde hauetan, lau dira aurkeztu diren hautes-zerrendak.

## Zerrenda-buru denak, berriak

Beste bitxikeria. Alkategai denak berriak dira. Lehen aldiz aurkeztu dira gainera, alkategai gisa. Xabier Arregi (EHBildu), Josune Urkola (EAJ-PNV), Fermin Orue-Echevarria (PSE-EE) eta Eduardo Arasti (PP).

## Aste honetan, alkategaien hitzak

Hauteskunde hauetara aurkeztu diren zerrenda-buru guztiak elkarriketatu ditugu. Gehigarri berezi honetan topatuko dituzue lau alkategaien adierazpenak. Lauei, noski, espazio berbera eskaini diegu.

## Datorren astean, hautes-programak

Datorren asteko NOAUA!n beste gehigarri berezi bat plazaratuko dugu. Eta gehigarri horretan, lau alderdiek euren hautes-programak aurkeztuko dizkigute. Euren egitasmoen berri emateko, lau alderdiek espazio berbera izango dute.

## Zubietako Herri Batzarra osatzeko hautagaiak

Udal eta Foru Hauteskundeekin batera, Zubietako Herri Batzar berria osatzeko bozka eguna izango da maiatzaren 24a. Erakundea eraberritzeko prozesua abiatu da. Maiatzaren 6an bozketa egunerako mahaikideak hautatu zituen Usurbilgo Udalak, zozketa bidez. Eta biharamunean ezagutzera eman ziren, Herri Batzar berrirako hautagaiak nortzuk izango diren. Administratiboki Zubietako bi udalerrien artean, Donostia eta Usurbil artean zatitua dagoenez, hona hemen bi lekuetatik aurkeztu diren 6 hautagaiak:

■ Zubietan helbideraturiko hautagai usurbildarrak: Aizpea Aizpurua Arroio, Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari

Zubimendi Urdanpilleta.

■ Zubietan helbideraturiko hautagai donostiarrek: Narciso Arrillaga Balda, Mikel Bengoetxea Iparragirre eta Fernando Iturralde Zabala.

Bateko zein besteko bi hautagai bozkatuenak arituko dira ordezkari lanetan.

### Agintea, txandaka

Sei kideek osatuko dute Zubietako Herri Batzarra; Zubietan helbideratuak dauden 3 donostiarrek eta 3 usurbildarrek. Maiatzaren 24ko bozketen ondoren, ekainaren 21ean eratuko da Herri Batzar berria. Lehen bi urteetan, donostiarrek hautaturiko alkatea egongo

da bi urtez. Usurbildarrek hautaturikoa, 2017-19 urte artean.

### Egutegia

■ Maiatzak 18, astelehena: aurrez botoa emateko aukera Usurbilgo udal idazkaritzan, goizeko 8:30etatik arratsaldeko 15:00etara.

■ Maiatzak 24, igandea: bozka eguna, 9:00etatik 20:00etara, Alamandegietxean.

■ Ekainak 21, igandea: Herri Batzarren eratzea. Donostiarrek hautaturiko alkatearen izendapena, bi urtetarako.

■ 2017an, alkate aldaketa. Usurbildarren bozka gehien jasotako hautagaia alkate, 2019ra arte.

# USURBILGINA ERINEZGINA

ea-j-pnv.eus  
gipuzko.eus

EMAN BOTOA



ea-j  
pnv



# Xabier Arregi

## EHBilduko hautagaia

**Lau urte ez dira alperrik pasa. A-  
tzean utzi dugun legegintzaldiari  
buruz, zein da zure alderdiak egi-  
ten duen balorazioa?**

Balorazio oso positiboa egiten dugu. Nortasun handiko herria da Usurbil, hiriburuaren eraginpean egon arren. Eta bukatzean den legegintzaldian nortasuna sendotu egin du: herri euskalduna, naturarekin errespetuz jokatzeko dakiena, konprometitua eta solidarioa, jarduera ekonomiko ona duena... Udalgintzan aritu den taldeak jakin izan du nortasun eta herri-balore horiek zaintzen eta indartzen. Horregatik eredutzat hartu izan da behin baino gehiagotan. Eta, begira, lagun askok adierazten dute gustura etorriko lirakekeela Usurbila bizitzera. Hori baino seinale hoberik ez da.

Hala ere, krisiaren eraginez familia ugari egoera larrian daude. Gure lehentasuna bada krisiaren ondorioei aurre egitea, baina udalak dituen baliabideak mugatuak dira, eta seguru motz geratu dela. Herritar guztiei bizitza duina bermatzea da gure asmoa, hala izan da orain arte eta hala izango da aurrerantz ere.

**Alkatetzara iritsiko bazina, zein li-  
rateke zure alderdiak defendatuko  
lituzkeen lehentasun nagusiak?**

Partaidetzari berebiziko garrantzia ematen diogu: parte hartzeko kultura hedatu nahi dugu gizarteko sektore guztietara. Kultura hori zabaltzeko behar-beharrezkoa da heziketa, baliabideak eta tresnak herritarren esku jartzea, autogestio mekanismoak lantzea, eta, noski, herritarren hitza errespetatzea. Hortaz, legealdi honetako lehentasunezko ekimenak ere herritarroei hitza emanez erabakiko ditugu.



Xabier Arregi, EHBilduko hautagai nagusia.

Bistakoa da, ordea, "oraina da ge-  
roa" plangintza orokorraren garape-  
nak zeresan handia izango duela. Gure herriko espazioak antolatu be-  
har ditugu hirigintza jasagarriaren  
ikuspegitik: porlanaren gainetik per-  
tsonak jarriz, eremu publikoa indar-  
tuz, gure baliabideak jarduera sozial  
eta ekonomikora ekarriz, herrian oi-  
nez edo bizikletaz mugitzeko auke-  
ra emanez, lurra zainduz eta natura  
errespetatuz.

Arlo sozialak bete-betean ardura-  
tzen gaitu: guretzat Usurbil mosaiko  
koloretsua da, genero, jatorri, adin,  
pentsakera, erlijio eta joera sexual  
anitzeko pertsonen osatua. Diber-  
tsitatea aberastasuna da, zaindu be-  
harrekoa. Horregatik udalak ezin du  
bereizkeriarik egin, eta denei, berezi-  
ki behar handiena dutenei, gizarte  
zerbitzuak eskaini behar dizkie modu  
duinean. Pertsona guztion eskubidea  
da, ez karitate.

**Krisia eta langabezia dira herrita-  
rren aspaldi honetako kezak. Bizi**

**dugun egoera ekonomikoari aurre  
egiteko, zer egin daiteke Udaletxe-  
tik?**

Arlo honetan eskumen mugatuak  
ditugula jakinda ere, gure ahaletara  
ekarriz, tokiko garapena bultzatzen  
saiatuko gara. Beste eredu ekonomi-  
ko baten alde egin nahi dugu: gure  
txikitik, bertako ekonomia suspertu  
nahi genuke, modu duinean. Eskual-  
deko Garapen Agentzia martxan jarri  
dugu, eta indartzea dagokigu legeal-  
di honetan.

Ahalegin betearen arituko gara ber-  
tako merkataritzaren, bertako pro-  
duktuen eta bertako enpresen alde.  
Ekonomia soziala ardatz hartuta,  
bestelako moduei bidea ireki nahi  
diegu, ekimen kooperatiboari adibi-  
dez, eta horretarako formazioa eta  
elkarlana eskaintzen saiatuko gara.  
Hasi berriei lanerako espazioa es-  
kainiko diegu, eta, nola ez, laguntzak  
behar dituzten enprekin ere arituko  
gara.

**Hondakinen kudeaketak zere-**

**san handia eman du Gipuzkoan. Usurbil aitzindari izan da atez ateko sistema ezartzen. Alkatetzara iritsiko bazina, dagoen bezala utziko al zenuke ala aldatu egingo zenuke?**

Usurbil aitzindaria izan da hondakinen bilketa selektiboan. Hemendik kanpo sekulako aitortza jaso dugu. Orain dela gutxi Espainiako telebistan agertu da Usurbil, eta eredu gisa jarri dute. Atez Atekoa herri erreferendumean aukeratutako sistema da. Beraz, nola ez diogu ba eutsiko atez atekoari?

Baina atez atekoa ez da berez helburua, bitartekoa baizik. Hondakinen kudeaketan, bilketa selektiboa lehenbiziko urratsa besterik ez da. Zero zabor planteamenduan aurrera egin behar dugu, eta hondakinen tratamendu integrala landu nahi dugu, zaborteziak itxiz eta bestelako azpiegitura egokiagoak martxan jarritz.

EAJk, eta bere inguruko lobby indartsu diruzaleek, garbi mehatxatu gaituzte berriz errauste-plantearekin. Nonbait Bizkaikoa izango da beren erredua: errauste-planta, zaborteziak, zabortezi toxikoak, biltegi selektibo eskasa. Beraz, erne!, mehatxua hor dugu, eta hasitako bideari tinko eustea beharrezkoa da. Aldaketa kultural eredugarria egiten ari gara hondakinen kudeaketan, eta orain bestelako interesengatik aurka daudenak ere, laster Usurbilen eta Gipuzkoan zenbat aurreratu dugun aitortu beste erremediorik ez dute izango.

**Duela lau urte, asko hitz egin zen Alderdien Legeaz. Lau urte eta gero, partehartzea normalizatu egin da. Gatazka giroa ere apaldu egin da. Bide onetik ikusten duzu**

**gatazkaren konponbidea?**

Gatazkaren konponbidea alde bakarretik landu da. Gatazkaren beste aldeak ez du deus egin. Oraindik gatazkaren ondorioak pairatzen ari diren herritar asko daude: espetxean, ihes eginda edo epaiketaren zain daudenak, torturatuak... Horiek beti eduki behar ditugu gogoan. Beraz, ezin esan bide onetik doanik.

Hala ere, alde bakarreko bide horretan sakondu beharra daukagu, besteek zer egingo duten zain egon gabe.

Bidean, tresna guztiak erabili behar harko ditugu: presio soziala, indar metaketa, lan instituzionala eta juridikoa, nazioarteratzea. Eta, batez ere, naziogintzan aritu beharra daukagu intentsitate handiz. Euskal Herriaren burujabetzaren bidean aurrea egin ahala, gero eta errazago mugiaraziko dugu beste aldea.

Gure Esku Dago dinamikan edo Euskal Bidean lan egiten dugunean, zeharka, gatazkaren konponbidean ere ari gara.

**Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?**

EH Bilduk prozesu zabala egin du hautagaiak aukeratzeko eta, prozesu horren buruan, batzarrak aukeratu ninduen.

Zergatik eman nion baiezkoa aukera horri? Ez dut nire bizitza herritik edo herrigintzatik aparte sentitu inoiz. Egia da herrigintzan aritzeko modu asko daudela, eta horietatik bat baizik ez dela udalean aritzea. Tira, hala egokitu zait niri oraingoan: EH Bilduren zerrendaburu izatea.

Eta aitortu beharra daukat konpromiso handia dela halako giza aberastasuna duen herri-mugimendu bateko ordezkari izatea.

## Labur-labur

**Zein da ondoen egiten duzun platera?**

Barazki pastela.

**Oparitzeko moduko liburu bat?**

Oraintsu irakurri dudana Jose Luis Otamendiren "Kapital Publikoa" gomendagarria da benetan.

**Gustuko kantu bat edo disko bat?**

Ruper Ordorika gustuko dut oso. Abesti bat? Martin Larralde, adibidez.

**Telebista saio bat?**

Sautrela.

**Usurbil ez den herri bat aukeratu:**

Sara.

**Zure alderdikoa ez den politikari bat hautatu:**

CUPeko David Fernández

## Zerrenda

**EHBildu**

Xabier Arregi Iparragirre  
Alaitz Aizpurua Labaca  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Aguirre  
Irene Garcia Palacios  
Josune Estella Arranz  
Joxe Mari Iribar Zapirain  
Jon Usarralde Aranzadi  
Begoña Elexpe Aguinaga  
Eustakio Arrojeria Eguskiza  
Isabel Korta Etxeberria  
Jose Piñas Sanfacundo

**Ordezkoak**

Kuluxka Olaizola Leizaola  
Asier Iturralde Sarasola  
Pepi Arruabarrena Sukia



# Josune Urkola

## EAJ-PNVko hautagaia

**Lau urte ez dira alperrik pasa. Atzean utzi dugun legegintzaldiari buruz, zein da zure alderdiak egiten duen balorazioa?**

Lau urte pasa dira eta gauza gutxi egin da herrian. Usurbil geldirik dagoela antzematen dugu ez baita proiektu berri garrantzitsurik egin. Eta asko arduratzen gaitu horrek, geldirik dagoen herriak atzera egiteko arriskua izaten duelako. Lau urte alperrik bota nahi ez baditugu, igarotakoaz ikasi beharra dugu. Eta, Usurbilek aurrera egitea nahi badugu, erreakzionatu. EAJ-PNVren helburua da herriari behar duen bultzada ematea. Izan ere, Udala ezker abertzalearen eskutian dago duela ia hiru hamarkada, eta Usurbilek haize berria eta aniztasuna behar ditu. Hori eskaintzeko, zerrenda berria osatu dugu adin eta lan ibilbide ezberdinetako gizon-emakumeekin. Herriaren eta herritarren alde lan egiteko konpromisoa hartu dugu, eta proiektu mordoak prestatzen ari gara egungo egoera hobetzeko.

**Alkatetzara iritsiko bazina, zein lirateke zure alderdiak defendatuko lituzkeen lehentasun nagusiak?**

Gure lehentasuna pertsonak dira, inor ez bide bazterean uztea. Hori dela eta, lankidetzatik, zerbitzuak bermatu eta denengana iristeko konpromisoa hartu dugu. Helburu hori gauzatzeko ezinbestekoa da Udalaren gastu finkoa murriztea. Izan ere, aurrekontuaren hamar eurotik zortzi gastu finkoak ordaintzeko erabiltzen dira, eta horrek inbertsioak gauzatzeko eta



Josune Urkola, EAJ-PNVko hautagai nagusia.

babes sistema bermatzeko zailtasunak eragiten ditu. Inbertsioen atalean, EAJ-PNVk zenbat proposamen egin ditu, besteak beste, kirol instalakuntzak eta landa guneko azpiegiturak hobetu, musika eskolarentzat eraikin berria egin eta eskola publikoren aldeko apustua berretsi.

**Krisia eta langabezia dira herritarren aspaldi honetako kezak. Bizi dugun egoera ekonomikoari aurre egiteko, zer egin daiteke Udaletxetik?**

Oso pixkanaka bada ere, egoera hobetzen ari da. Hala ere, egungo egoerari aurre egiteko uste dugu udala herriko ekonomia suspertzeko eragile bilakatu behar dela. Horretarako, EAJ-PNVk konpromisoa hartu du herriko enpresen eta merkatarien egoera eta kezak ezagu-

tu eta gertutasunetik bideratzeko, bai eta Buruntzaldea osoari zerbitzua emango dion Garapen Agentzia eraginkorra bultzatzeko ere. Benetan salagarria da ezker abertzaleak gai honen inguruan izandako jarrera: gehiengo osoa duen herrietan bakarrik aurrera eraman du garapen agentzia, agerian jarritzeko ezker abertzalearen gabeziak eta haiekin bat ez datozen proiektu eta alderdi guztiak alboratuz.

**Hondakinen kudeaketak zeresan handia eman du Gipuzkoan. Usurbil aitzindari izan da atez ateko sistema ezartzen. Alkatetzara iritsiko bazina, dagoen bezala utziko al zenuke ala aldatu egingo zenuke?**

Hondakinen arazoa Gipuzkoan daukagun beste arazo garrantzitsuetako bat da. Gure herrian gal-

deketa bat egin zen, eta emaitzak oso parekatuak izan baziren ere, atez ateko sistemaren aldekoak irabazi zuen. Hori onartzen dugu, baina uste dugu sistema bera egokitu eta hobetu behar dela. Izan ere, egungo kudeaketak 300.000 euroko defizita dauka, eta gastu hori luzaroan mantentzea oso zaila edo ezinezkoa da. Herritarrak birziklatzearekin sentsibilizatuak daudela ikusita, organikoarekin egiten den bezala, edukiontzien aldeko apustua egiten dugu, askoz merkeagoa delako eta antzerako emaitzak eman ditzakeelako.

**Duela lau urte, asko hitz egin zen Alderdien Legeaz. Lau urte eta gero, partehartzea normalizatu egin da. Gatazka giroa ere apaldu egin da. Bide onetik ikusten duzu gatazkaren konponbidea?** Gatazkaren konponbidea bide onetik doan arren, oraindik ere aurre-rapausoak ematen jarraitu behar dugu Euskadin, benetako bakea eta bizikidetzat lortzeko. Pertsona guztien giza eskubideak errespetatu arazi behar dira, eta azken hamarkadetan gertatu denaren irakurketa kritikoa egin. Hori baita hainbeste sufrimendu eragin duen gatazka berriro ez errepikatzen bide bakarra. Horrez gain, bermatu behar da herritar guztiak errespetatuak izan daitezen eta inor ez dezan bazterketarik izan ideologia edota militantzia arrazoiengatik. Zoritzarrez, antzematen dugu ez dela berdina alderdi batekoa ala bestekoa izan. Eta horrek kezka sortarazi beharko liguke. Izan ere, guztientzako eremuak konpartitzea-

ren ideia ez da bakarrik emakume zein gizonezkoen eskubidea, bertakoena zein kanpotik etorritakoena, gazteena edo helduena, urritasuna daukatena eta ez daukatena. Ideia ezberdinak ditzuten herritarrek errespetu osoa merezi dute. Behin betiko honekin bukatu behar dugu, euskaldunok etorkizun baikor bat merezi dugu eta.

#### **Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?**

Uste dut Alkatetzarako hautagai aurkezteko bi baldintza bete behar direla. Lehenengoa, norberaren konpromisoa adieraziz, herritar guztien artean ausardiaz pausu bat aurrera ematea. Eta bigarrena, erantzukizun horri behar bezala aurre egiteko nahikoa ezagutza izatea. Nire bizitzaren helduaroan, apal eta arduraz esan dezaket biak betetzen ditudala. Gure seme-alabeei guztion onurarako lan egitearen garrantzia eta atsegina helarazi nahi diet, beraiantzako jarraibidea eraikiz. Gaztetatik izan dut gustuko herrigintza; azken bi legegintzaldietan bigarren mailan aritu naiz jardun horietan, baina pasa den urteko otsailaz geroztik zinegotzia naiz udalean, eta herriarentzako lanerako gogoia areagotu dit. EAJ-PNVk zerrendaburu izatea proposatu zidanean poza sentitu nuen: ohore handia da neuretzat Eusko Alderdi Jeltzalearen ordezkaria izatea Usurbilen. Erronka handia daukat eskuartean, baina, neurekin dagoen lan taldeari esker, ziur naiz lana ondo baino hobeto egiteko gai izango naizela.

## **Labur-labur**

**Zein da ondoen egiten duzun platera?**

Patata tortilla.

**Oparitzeko moduko liburu bat?**

El testamento del Chacal  
(Ander Izagirre).

**Gustuko kantu bat edo disko bat?**

Memorian (Gontzal Mendibil).

**Telebista saio bat?**

**Usurbil ez den herri bat aukeratu:**

Asteasu.

**Zure alderdikoa ez den politikari bat hautatu:**

Uxue Barkos.

## **Zerrenda**

**EAJ-PNV**

Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
José María Zubiria Eguskiza  
Lourdes Jauregiberri Goenaga  
Maria Jose Ibarogoyen Lizarazu  
Esteban Goenaga Otegi  
Juan Gorostidi Echeverria  
Juan Maria Zubeldia Arrieta  
Joseba Iñaki Illarramendi Echabe  
Miren Elisabet Ecenarro Ganzarain  
Julian Beraetxe Aramburu



# Fermin Orue-Echevarria

## PSE-EEko hautagaia

**Lau urte ez dira alperrik pasa. Atzean utzi dugun legegintzaldiari buruz, zein da zure alderdiak egiten duen balorazioa?**

Usurbilentzat, galdutako lau urte izan dira. Usurbilen bizi eta lan egiten duten pertsonen egunerokotasunean dituzten beharren aurrean, Bilduren gobernua interes partidisten alde aritu da.

Udaletxean sozialistak egin dugun oposizio serioa, zorrotza eta eraikitzailearen aurrean, inposizioa eta *rodilloa* izan da Bilduren jarrera.

Krisi ekonomikoaren aurrean, Bilduk bere aldekoentzat bakarrik aritu da, eta gizarte politikez paso egin dute.

**Alkatetzara iritsiko bazina, zein lirateke zure alderdiak defendatuko lituzkeen lehentasun nagusiak?**

Gure lehentasuna enplegua da, eta krisitik ateratzeko arazo gehien dituztenentzat gizarte zerbitzuen mantenua.

Alkatetzara iristean egingo dugun lehendabiziko ekimena izango da atez atekoa kentzea, hondakinen bilketa sistema gisa atez atekoa kendu eta edukiontzia ipintzea, edukiontzi marroia barne, hondakin organikoarentzat txiparekin eta era boluntarioan, eta laguntzak zein onura fiskalak ezarri jendeak ikus dezan zein onuragarria den sailka egindako bilketa eta birziklatzea.



Fermin Orue-Echevarria, PSE-EEko hautagai nagusia.

**Krisia eta langabezia dira herritarren aspaldi honetako kezkak. Bizi dugun egoera ekonomikoari aurre egiteko, zer egin daiteke Udaletxetik?**

Udalak irmo eta determinazioarekin egin behar dio aurre krisiari, eta Berraktibazio Ekonomikoa eta Enpleguaren aldeko Herri Plan bat ipini. Plan horren bitartez, programa bat ezarri langabezian dauden kolektiboentzat, zailtasun bereziak dituztenentzat: iraupen luzeko langabetuentzat, emakumeentzat eta 45 urtetik gorako langabeentzat.

Poligono industrialetan arazoak dituzten enpresen mantenturako laguntzak eman behar dira, eta horretaz gain lur industrial handitu eta enpresa berrien inplementazioa lagundu,

Usurbilgo garapen ekonomikoaren aldeko ekimenak sustatu.

Komertzioaren zinegotzigoa eratu behar da, gune honetatik komertzio txikien garapena ekarriko dituzten ekimenak martxan jar daitezten, eta berau sustatzeko laguntzak bideratu daitezten.

**Hondakinen kudeaketak zeresan handia eman du Gipuzkoan. Usurbil aitzindari izan da atez ateko sistema ezartzen. Alkatetzara iritsiko bazina, dagoen bezala utziko al zenuke ala aldatu egingo zenuke?**

Sozialistak dagoeneko argi utzi dugu ez gaudela atez ateko sistema bezala ezaguna den hon-



dakin-bilketaren alde. Sistema garestia delako, zikina, deserosoa eta sostengarritasun gutxi-koa.

Gu hondakinen kudeaketan edukiontzien alde gaude, beraz, Bilduk inposatu duen sistema aldatuko genuke, bosgarren edukiontzia ezarriko genuke, txiparekin eta modu boluntarioan. Birziklatzearen aldeko eta bilketa selektiboaren aldeko sentsibilizazio kanpainak egingo genituzke, eta onura fiskalak ezarriko genituzke hondakin organikoen edukiontzia erabiliko luketen guztientzat.

**Duela lau urte, asko hitz egin zen Alderdien Legeaz. Lau urte eta gero, partehartzea normalizatu egin da. Gatazka giroa ere apaldu egin da. Bide one-tik ikusten duzu gatazkaren konponbidea?**

Sozialistak ez dugu uste inongo gatazkarik konpondu behar denik. Alderdien Legea ez dago indargabetua eta orain bezala, duela lau urte bezalaxe, udal eta foru hauteskundeetara aurkeztu nahi izan zuten guztiak aurkeztu ahal izan dira, legea betez.

Duela lau urteko eta gaurko egoeraren arteko desberdintasuna da ETAK jada ez duela hiltzen, baina oraindik behin betiko urratsa ematea falta zaio, disoluzioarena. Eta disoluzio honen ondoren, hitz egin beharko dugu eta hitz egin ahal izango dugu memoriaz eta elkarbizitzaz euskal gizartean.

**Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?**

Politikak kontrako asko dituen garai hauetan, konpromiso politiko bat hartzea erabaki dut, herritarrengandik gertuen dagoen instituzio batean ardura bat hartuz.

Uste dut herritarren bizi baldintzak hobetzeko tresna ona dela politika, ohorezko eginbeharra dela, eta Euskadiko Alderdi Sozialistak zerrenda sozialista gidatzeko aukera eman dit. Eta horrek balioko du usurbildarrek erreferentzia bat izan dezaten, euren konfidantza eta euren bo-toa ematen segi dezaten.

## Labur-labur

**Zein da ondoen egiten duzun platera?**

Bakailaoa.

**Oparitzeko moduko liburu bat?**

Ken Folleten edozein.

**Gustuko kantu bat edo disko bat?**

80etako musika.

**Telebista saio bat?**

Página 2 (La2).

**Usurbil ez den herri bat aukeratu:**

Hondarribia.

**Zure alderdikoa ez den politikari bat hautatu:**

Adolfo Suarez.

## Zerrenda

**PSE-EE**

Fermin Orue-Echevarria Iturri  
José Manuel Soriano Aguilar  
María Lourdes Urigain Martín  
Mikel de Aralar Sardón Delgado  
Susana Mayor Araque  
Francisco Magro Anega  
Esmeralda Morcillo León  
José Luis Rodríguez Chans  
María Pilar Gonzalo Ochoa  
Venancio López Gómez  
Mercedes Córdón Gómez  
Pablo Vázquez Vilaríño  
Delfina Parrado Alvarez



# Eduardo Arasti Barca

## PPko hautagaia

**Lau urte ez dira alperrik pasa. Atzean utzi dugun legegintzaldiari buruz, zein da zure alderdiak egiten duen balorazioa?**

Aurreko legealdia legealdi galdua izan bazen Usurbilentzat, azken hau aurrekoaren jarraipena izan da. Normala da, azken batean ideario berberak jarraitu dira bi garai horietan.

Usurbil herri monokromatiko batean bihurtu da, uniformatua, non apenas ez dagoen manio-brarako tarterik.

Legealdian ez dira alternatibak ikusi, egin den guztiak zentzu berbera izan du.

Uste dugu aukera falta hau ez dela ona ezta sana herriaren-tzat.

Kontrako ideiek eragin ditzaketen akuilu horiek gabe, dena monotonoa bihurtzen da eta objektioak planteatzen dituen inor ez dagoenez, udal jarduera geldia-razi eta lokartu egiten da.

**Alkatetzara iritsiko bazina, zein lirateke zure alderdiak defendatuko lituzkeen lehentasun nagusiak?**

Usurbilen, eta alkatetzara iristen den toki guztietan, Alderdi Popularraren lehentasun nagusia herritarra da, Usurbilgo herritarra, bere arazo, bere proiektu, eta bere ilusio guztiekin.

Guk gizarte ireki bat defendatzen dugu, non pertsona bakoitza, herritar bakoitza gure politiken gune bilakatzen den, gremio konnotazioetatik urrun, non gizabanakoa eta askatasun indibiduala difuminatua geratzen den



Eduardo Arastiren argazkirik ezin lortu, alderdiaren logoa ipini dugu.

subjektu kolektibo baten menpe.

**Krisia eta langabezia dira herritarren aspaldi honetako kezkak. Bizi dugun egoera ekonomikoari aurre egiteko, zer egin daiteke Udaletxetik?**

Egia da udaletxe txiki batek erreminta gutxi dituela enplegu faltari aurre egiteko eta jasaten ari garen krisiari aurre egiteko. Baina jarduera bati ekin nahi dioten pertsoneri, erraztasun guztiak eman behar dizkiogu udaletxetik. Era guztietako erraztasunak, burokratikoetatik hasi eta bideragarriak diren erraztasun ekonomikoak bitarte.

Ez dugu ahaztu behar, azken batean, enplegua sortzen dutenak, eta aberastasuna sortuz enplegu gehiago sortzen dutenak ekintzaileak diren pertsonak dire-

la, eta hauekin bereziki abegikor eta irekia agertu behar da udaletxea, eta traba guztietatik libre utzi, euren egitasmoak martxan jar ditzaten.

**Hondakinen kudeaketak zeresan handia eman du Gipuzkoan. Usurbil aitzindari izan da atez ateko sistema ezartzen. Alkatetzara iritsiko bazina, dagoen bezala utziko al zenuke ala aldatu egingo zenuke?**

Ez da hondakinen kudeaketak zeresan asko eman duenik, orrialde asko eta espazio asko betetzen du oraindik hedabideetan eta herritarren arteko eztabaida askotan entzuten den gaia da, eta baita tertulia eta eztabaida politikoetan ere. Eta deigarriago dena, herritarren erreakzio bizia eragiten du.

Gu ez gaude atez ateko sistemaren aldekoen artean. Ez gaitu ase-betetzen, zikina delako, ez da praktikoa eta ez da oso higienikoa.

Nahikoa tiranikoa da praktikan sistema hau, ordutegi zorrotzekin eta betekizun estuekin, gure konposizio sozialaren dibertsitatearekin eta aldaerarekin nahikoa bateraezina dena.

Mankomunitate jakin baten inguruan, Herri Kontuen Epaitegiak duela gutxi publiko egin dituen azken txostenen arabera, sistema honek dakartzan gastuak %104 igo direla dio.

**Duela lau urte, asko hitz egin zen Alderdien Legeaz. Lau urte eta gero, partehartzea normalizatu egin da. Gatazka giroa ere apaldu egin da. Bide onetik ikusten duzu gatazkaren konponbidea?**

Hala da, Alderdien Legeaz asko hitz egin zen, baina gaur egun Alderdien Lege hori indarrean dago, biolentzia erreminta politiko gisa praktikatzan duten erakundeek politikan partehartzea ekiditeko egina dagoelako. Edota biolentziaren erabilera sustatzen dutenak, erabiltzera animatzen dituztenak, edo biolentziaren bitartez errendimendu politikoak lortu nahi dituztenen partehartzea ekiditeko.

Giroa lasaiago dago ETA erakunde terroristak erailtzeari utzi diolako, baina oraindik falta da hainbeste hildako eragin dituen erakunde terroristak, gure

herriari estortsio egin dionak, txantajeatu eta mehatxatu duenak, eskenatokitik desagertzea, disolbatu egin dela iragarri dezala, luzamendu eta ihesbide gehiagorik gabe.

ETA desagertu arte, disolbatzen dela jakinarazi arte, ez da ezer konponduko.

Ez da ezer konponduko, zeren hemen ez dago, eta ez da egon gatazkarik, batzuk halaxe sines-tarazi nahi diguten arren.

Demokrazia batean gaude, denok errespetatu behar ditugun joko arau batzuekin, arau horiek asko edo gutxi gustatu arren, eta arau horien barruan edozein posizio planteatu dezakegu, inork ez gaitu horregatik jazartuko.

**Zergatik aurkeztu zara alkategai moduan?**

Usurbilen aurkezten gara udal hauteskunde hauetara, Alderdi Popularrak Usurbilen aurretik izan duen ordezkaritza errekupe-ratzea helburu dugulako.

Jakitun gara ditugun zailtasunez, tradizionalki hala izan delako, baina uste dugu alderdi bezala gure obligazioa dela Usurbilgo bizilagunei Alderdi Popularrari bozka emateko aukera eskaintzea.

Askatasun kontua da, eskaintza elektoralen aukera irekitzea eta zabaltzea.

Gobernu alderdia gara, kudeaketarako egokia, herritarren arazoez kezkatuak, eta Usurbilgo herritarrei ahalik eta zerbitzu publiko onenak eskaintzeko gogo-

## Zerrenda

### PP

Eduardo Arasti Barca  
Ernesto Andrés López de Vicuña  
Sergio Clemente Romero  
Ana María Castillo Gutiérrez  
María Alfonsa Rodríguez Oliva  
Ricardo Álvarez Vega  
Guillermo Aliaga Gil  
María Josefa Viñas Torres  
Javier Díaz-Meco Aragonés  
María Teresa Bravo Botija  
Arturo Delgado Sánchez  
Tania Pumares Barallobre  
Rocio Notario Aceituno

Ordezkoa:

Silvia María Rodríguez Barrio

USURBILDARROK  
*garaile!*

**M16**, larunbata  
PINTXOTXOTX solasaldia hautagaiekin  
Sutegi aurrean, 12:30ean

**M20**, asteazkena  
Herri programaren aurkezpena  
adinekoei. Artzabalen, 18:00tan

**M21**, osteguna  
Herri programaren  
aurkezpena gazteekin.  
Potxoenean, 19:00tan

**M22**, ostirala  
Ekitaldi politikoa  
frontoian,  
19:00tan



EMAN BOTOA

**ehbildu**

# Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio

**BAI**

Komertzioetako  
plastiko poltsa

Kafe kapsulak hustu

Albal papera

Aerosolak

Erebitu-hustutzeko  
lorontziak

Plastikoako botilak,  
letak eta tetrabrikak

Merrubien egurrezko  
haza txikiak

**EZ**

Medikamentu  
kondarrak

Ontziak likidoarekin  
(hustu eta tolestu)

Tonerrak

Lorontzi finko  
goporrak

Jostailuak

Plastikoako  
eskulerruak

# Matrakak Taldea: “Feministon helburua pertsona askez osaturiko jendarte parekide bat eraikitzea da”

Ahalduntze eta kontzientziaz lanetan sakontzen jarraitzeko ilusioz da, herri eragileen artean lehen hilabeteak egin dituen Matrakak Usurbilgo Talde Feminista. NOAUAri eskainitako elkarrizketan, parekidetasuna lortzeko bidean aurrera egin eta taldea sendotzen segitzeko asmoa dutela adierazi digute. Horretarako ahalik eta jendarte zabalenera heldu nahi dute. Lerroon bidez, betaurreko moreak janzteko gonbita luzatzen digute Matrakak Taldekoek. Eta emakumeak, maiatzaren 23rako kafe tertulia batera hitzartu dituzte.

## Nola deskriba dezakezue Matrakak taldeak denbora honetan izan duen bilakaera?

Bilakaera pausoz pauso doa. Ez da erraza denok astero biltzea, baina esfortzua egiten dugu gure egunerokoez gain, tartetxoak bilatu eta elkartzeko. Badakigu beharrezkoa dela eguneroko lana, azken finean, emakumeok gaur egun dauzkagun lorpenak bere garaian aitzindari feministek borrokatu zituztelako da. Orain arte antolatutako ekitaldietan, hala nola, bertso afarian, mikromatxismoen eta biolentzia sinbolikoaren inguruko hitzaldian, film proiektzioetan etab. herritarrak hurbiltzen direla ikusteak gogobetetzen gaitu eta lanean jarraitzeko ilusioa ematen digu.

## Matrakak, ez da ezerezetik sortzen. Zein izan da herrian mugimendu feminista aktibatzeak abiapuntua?

Hasiera batean, herrian, feminismoaren lanketa udaletxeak bultzatutako Parekidetasun Kontseilura eta gazte mugimendura mugatzen zen, eta geuk, herritarrengandik hasitako mugimendu osatuago baten falta ikusten genuen. Zuzenean feminismoa zuzenduko zen eragile berri eta bateratu baten beharra somatzen genuen, herritik herriarentzat jardungo zena. Horrela bildu eta sortu ginen ikasturte honen hasieran.

Honez gain, kontzientzia kolektiboaren beharraz jabetzen gara,



Erle Egunean elkarretaratzea egin zuten. Maiatzaren 23rako kafe-tertulia deitu dute. Eguerdiko 11:00etan Potxoenerako lehen solairuan.

## KAFE TERTULIA

**“Konfiantzazko klima bat sortzea da tertuliaren xedea, egunerokotasunean konpartitzen ez ditugun gaiak hitz egiteko”**

izan ere, emakumeok indibidualki egiten dugu gure borroka pertsonala askotan. Aldarri feminista batek dioen moduan, pertsonala politikoa denez gero, beharrezkoa dugu antolatuta eta kolektiboki gure eskubideak exijitzea. Matrakak taldeak aukera hori ematen digu.

## Talde feminista izateak zer inplikatzeko du?

Uste oker orokor bat zabalduko dago feminismo hitzaren inguruan, konnotazio negatiboa du, askok matxismo hitzaren antonimotzat dute. Feministon helburua, aldiz, pertsona askez osaturiko jendarte

parekide bat eraikitzea da. Beste era batean esanda, emakume eta gizonen arteko parekidetasunaren alde borrokatzea da guretzat feminista izatea. Gizonek, emakumeon aldean, pribilegioak dituzte, ez ditugu eskubide eta aukera berdinak. Feminismoak parekidetasun horren alde borrokatzen du. Behin betaurreko moreak ezartzean, ez dago atzera bueltarik...

## Hilaren 23rako kafe tertulia iragarri duzue. Hitzordua zertarako baliatu nahi zenukete?

Konfiantzazko klima intimo bat sortzea da xedea, egunerokotasunean konpartitzen ez ditugun gaien inguruan tertulia zabal bat egiteko. Zerbait informala izango da, gure artean hitz egin eta lagunarteko giroan emakumeoi eragin eta kezkatzen gaituen gaiak buruz hitz egitera bideratu nahi dugu kafe tertulia hau. Ahalik eta emakume gehienengana iritsi nahi genuke, adinean eta beste hainbat aspektutan erreparorik izan gabe,

guztiok baitugu gainontzekoen esperientzietatik zer ikasia. Ziur gaude aberasgarria izanen dela, hortaz, ez pentsatu bi aldiz eta gerturatu lasai, beso-zabalik hartuko baitzaituztegu!

## Hauteskunde kanpaina betean gara. Zeintzuk behar lukete parekidetasunaren alorrean, 4 urteotarako lehentasunak?

Hasteko emakume eta gizonen arteko parekidetasuna lortzeak agenda politiko guztien lehentasuna behar luke izan. Borroka feminista ez zen atzo hasi, aldiz, aurrera pausoak oso txikiak izan dira; ikusi besterik ez dago lehengo urtean Espainiar Gobernuak abortatzeko eskubidearen aurka hasi zuen kanpaina krudela edota parekidetasuna lortu denaren ilusio eta uste faltsua zabaldu eta emakumeok pairatzen ditugun zapalkuntza egoerak inbisibilizatzeko eginiko lanak. Emakumeon oinarriko eskubideez ari gara, gizaki bezala dagozkigun eskubideez. Politika guztietan izan behar dute genero perspektiba kontuan. Hala ere, badirudi, beste gai batzuk garrantzia gehiago dutela; krisiak, fraudeak, yihadismoak edota gizonezkoen futbolak. Bitartean, erailldako emakumeen zifra gorantz doa eta emakumeon bizi kalitatea devaluatzen. Lehentasun gisa, primeran legoke, zuzenean parekidetasunera bideraturiko udal teknikari eta zinegotzi batekin kontatu ahal izatea.

## “Emakumeon bizitza hobetzeko nahiak batzen gaitu”

### Nola ikusten duzue udalerrria, parekidetasunerantz jorratzen ari den bidean?

Zenbait ekintzetan Parekidetasun Sailarekin elkarlanean ibili gara eta esperientzia ona izan da. Beharrezkoa da arduradun politikoen inplikazioa gizon eta emakumeen parekidetasuna lortzeko bide honetan. Oraindik asko dago egiteko, baina Udaletxeak Usurbilgo Eragile Feministaren ekarpenak kontuan hartzea posi-

tiboki baloratzen dugu.

### Matrakak irekia dago herriko emakumeentzat. Zer ekarpen egin diezaioke emakume batek taldeari?

Taldean gai ezberdinen inguruan eztabaidatzen dugu eta oso aberasgarria da. Matrakak taldean denak gara oso ezberdinak baina gauza batekin batzen gaitu; feministak garela. Emakumeon desabantailazko egoeraz kontziente

gara eta emakumeon bizitza hobetzeko nahiak elkartzen gaitu.

Elkarlanean indartsuagoak gara. Gutako matraka bakoitzak ekarpenak ditu egiteko, modu horretan, edozein emakumek bere inpaktutxo eragin dezakeela badakigu; etxean, lanean, kalean, familia artean, lagun artean edota Matrakokin taldean! Feminismoaren sarea zenbat eta handiagoa izan, gure ahotsa orduan eta ozenagoa izango da.

# Ehuntsze egun koloretsu eta parte hartzailea



Koadrila ugari batu ziren Ehuntsze Egunean. Horieta batak ageri dira argazki honetan.

Ekarlana, parte hartzea eta sortze lan ederra sustatu zuen Gure Esku Dago mugimenduak larunbatean, Usurbilen deitu zuen Ehuntsze Egun koloretsuan. Ekainaren 21ean Euskal Herriko hiriburuetan oihal zatien osatuko diren erabakitze eskubidearen aldeko hautestontzi erraldoien ekimena girotzeko, herritar koadrila ugari batu ziren Mikel Laboa plazan. Ehunak koloreztatu eta josten aritu ziren.

Sortze lan ederra egin zuten usurbildarrek. Erabakitze eskubidearen aldeko mezu koloretsuak nagusitu dira oihal zati handietan; "Herri bat amets, gure esku dago", "etorkizuna gure esku dago", "Geu gattunk geure etorkizunaren jabe" bezalako aldarriak, denon neurriera eginiko Euskal Herri baterako osagaiak, esku markak eta abar luze bat. Lanon emaitza noaueus atariko Argazkitegiko irudietan duzue.

## Pintxotxotx solasaldia antolatu du EHBilduk

Frontoian, Atxegalden, Munalurran eta Kiroldegi parean dauden hauteskunde panteletan kartelak jarri abiatu zuen aurreko ostiralean Usurbilgo EHBilduk, maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeei begirako kanpaina. Maiatzaren 22ra arte luzatuko den bozka eskatzeko epearen baitan, herri programa auzoz auzo aurkezten segiko du EHBilduk. Bi ekitaldi ere deitu dituzte:

### Maiatzak 16, larunbata

12:30 Kaxkoan, Sutegi aurrean: Pintxotxotx solasaldia hautagaiekin.



Larunbat honetan, hautagaiekin solasean aritzeko aukera izango da larunbat honetan, Kaxkoan.

### Maiatzak 22, ostirala

19:00 Ekitaldi politikoa frontoian.

## Xanixtebanak, bilera

Abuztu hasierako jaiak antolatzeko hurrengo bilera larunbat honetan, maiatzak 16, 15:00etan Txirristra tabernan.

## Buruhandiekin jaietan ateratzeko jendea behar da

Santixabeletan, buruhandiekin ateratzeko jendea behar da. Uztailaren 1ean, 2an eta 5ean hain juxtu. Beste egunetan bolondresak badaude eta ez dira behar.

Animatzen dena kiroldegira hurbildu dadila Kirol sailera, (Iñaki, 943372498/ kiro-la@usurbil.eus), edo Kultur sailera (Maite, 943371999 / kultura@usurbil.eus).

## Estresa bideratzeko ikastaroa, Kiroldegian

Mendekotasunen bat duten pertsonen zaintzaileei zuzendua egongo da, Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak antolatu duen ikastaroa. Saioak, Oiarde Kiroldegian izango dira. Izen emateko 943 377 110 / Gizarte Zerbitzuak.

## Eskubaloia Kiroldegian Maiatzak 16, larunbata

09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5B-Urnieta 5C  
09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Langile B  
10:30 Alebin mutilak:  
Udarregi 6B-Andoingo Ikastola 6A  
12:00 Infantil neska:  
Udarregi A Usurbil-Tolosa A  
17:00 Kadete neska:  
Usurbil K.E. "B"-Urola Ugarte Harategia  
19:00 Senior mutilak, 1. Territoriala:  
Usurbil K.E.-Tolosa C.F.

## Futbola Haranen

### Maiatzak 16, larunbata

10:00 Alebinak: Udarregi 5A-Udarregi 5B  
10:00 Alebinak: Udarregi 6B-Langile A  
11:00 Alebinak: Udarregi 6A-Astigarraga  
12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Vasconia  
17:00 Ohorezko Maila: Usurbil F.T.-Hernani

### Maiatzak 17, igandea

09:00-11:30 Futbol Eskola:  
Usurbil F.T.-Orereta Kafea, F.C.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**Kima**  
MASAJE LEKUA

- KIROL MASAJEA • MASAJE TERAPEUTIKOA
- KOLONAREN HIDROTERAPIA

Naugusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

## Igoeraren bila doaz Santanderrera

Usurbil KE-ko taldeak asteburuan Numancia Kiroldegian jokatu duen txapelketa irabaziko balu, iazko egoera berean aurki daiteke; Zilarrezko Ohorezko Mailara igo daiteke. Iaz mailaz igotzea lortu zuten arren, aurrez zuten mailan lehiatu dira denboraldi honetan. Eta bigarren, igoera lortu dezakete Santanderren. Asteburuko neurketok ikustera joan nahi duzuenontzat, asteburu pasa antolatu du Usurbil K.E.-k.

"Maiatzak 15etik 17ra (bi gau), pensio osoan, logela bikoitz edo hirukoitzean, 80 euro pertsonako.



Senior neskek Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzen saiatuko dira.

Nahi duenak usurbilke@gmail.com edo 670 070 562 (Jexux) telefonora dei dezala".

### Maiatzak 15, ostirala

18:15 OID BM Pereda-Usurbil K.E.  
21:00 Redondela-Valladolid

### Maiatzak 16, larunbata

18:15 OID BM Pereda-Valladolid  
21:00 Redondela-Usurbil K.E

### Maiatzak 17, igandea

10:15 Usurbil K.E.-Valladolid  
13:00 OID BM Pereda-Redondela

## Ohorezko Mailari eusteko neurketa erabakiorra



Larunbat honetan Haranen jokatu dute, Hernaniren aurka.

Senior mutilen taldeak neurketa garrantzitsua jokatu du larunbat honetan, 17:00etan Haranen, Hernaniko taldearen aurka. "Lehenengo urtean, ohorezko mailara igotzeko taldeak sekulako lana egin zuen eta baita lortu ere. Aurten, maila berrian, gauzak ez dira berdin joan, gorabehera dezente izan dira. Baina orain, maila mantentzeko aukerakin dago taldea. Azken jardunaldiko garaipenarekin eta gertu

dauden taldeen berdinetekin, maila mantentzeko aukerak handitu dira. Bi partiden faltan, gure esku dago maila mantentzea", Usurbil FT-tik berri eman dutenez. Etxekoak animatzera joateko gonbita luzatzen dute: "Jantzi daukazuen kamiseta gorria, hartu bufanda eta etor zaitzete gure taldea animatzera!". Hala egiten duenak, atsedendian egingo den bi sariren zozketarako errifa jasoko du doan.

## Kadete mutilen Kopako final laurdena

Larunbat honetan 12:00etan Haranen. "Usurbil Futbol Taldeko kadeteek partida polita izango dute larunbatean. Azken jardunaldian kopako lehiaketan aurrera egiteko lehen pausua eman zuten. Partidaren ostean oso pozik ageri ziren usurbildarrak", diote Usurbil FT-tik. Larunbatean final laurdena jokatu dute. "Kamiseta gorria jantzi eta etorri Haranera taldeko mutilak animatzera!", Usurbil FT-koen gonbita.



Larunbatean eguerdiko 12:00etan jokatu dute Haranen.

## Lokiz mendizerrara, Andatzakoekin batera

Ekainaren 14rako antolatu du hurrengo irteera Andatza M.K.T.-k. Lokiz mendizerrara. "Irteera honetan Narkue eta Urbisu herriak lotzen dituen ibilbidean Arnaba mendia igoko dugu", antolatzaileek esanetan. Izen ematea ireki dute. Informazio gehiago: andatza.com

## Usurbil Cup-eko bilera

Usurbil FT-k deitutako bilera ostiral honetan, maiatzak 15, 19:00etan Potxoenean, "araudia, egutegia eta egon daitezkeen zalantzez hitz egiteko". 38 taldek eman dute izena aurtengo edizio-rako. Maiatzaren 22an abiatuko da txapelketa.

## Kirol munduko arau eta baloreen gaineko hitzaldia

Maiatzaren 28an 19:00etan Potxoenean, Usurbil FT-k antolatuta. Luis Zulaika adituak eta herriko zenbait kirolariek ere parte hartuko dute, Haritz Zubiaurrek bideratuko duen hitzaldian. Kirol munduko arau eta baloreak, eta neska-mutilek zenbat urterekin hautatu behar duten kirol jarduera bat, horietatik ahotan hartuko dituzten gaiak. "Usurbildar guztiarentzat irekia izango da hitzaldia. Anima zaitzete!!", gonbita Usurbil FT-tik.

## Eskubaloia, Gipuzkoako Selektzioa Oiardon

### Maiatzak 17, igandea:

09:15-11:00 Jubenil nesken entrenamendu saioa: Estitxu Berasategi, Ane Irazabal.

11:30-12:30 Jubenil mutilen entrenamendu saioa: Imanol Furundarena, Mikel Atxega.

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**TAXI**  
24 h  
ORAIN 8 PLAZA!  
677 37 34 66 ] Joxe  
943 36 21 78 ] Etxabe

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ETXEBIZITZA****Salgai**

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Pisu bat salgai Erreka-txiki kalean. Sukalde-egongela, 2 gela, komuna, balkoia. Ganbara egongelarekin lotua. Garaje itxia barne. 210.000 euro. 656716844 Enrike

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraigarrria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1. Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Errefermak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbara handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetakotako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz

kanpoaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta errodarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, mas-kotarik ez. 686 056 040 (Maria-in).

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatzeko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

**MOTORRA****Salmenta,  
garajeak**

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrenean 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo

alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Urte osorako zerbitzari eskualduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Lan bila nabil. Interna moduan ere bai. Asteburu eta jai egunetan ere lan egingo nuke. Tel. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketean. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, eskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketean, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinudak edo amaieran dauden pazientiekin zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketean... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketean lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papela



**Zorionak Nikole!**  
Gure txapeldunari, bost urte bete dituela eta ze ondo ospatu genuen eh!!! Muxu asko asko familiarren partez.



**Zorionak Jon!**  
Maiatzaren 15ean bost urte beteko dituzu. Jarraitu beti bezain alai izaten. Muxu asko familia osoaren partez.



lek. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egin- go nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilarena ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentzietan. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentzietan. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentzietan. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia.

Erreferentzietan. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egin- go luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteen- kin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentzietan (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulu (goi maila) Ingelesa: Advanced titulu (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, ger-

tu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurreratu... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrak ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzean eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua

bukatzean eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

**BESTELAKOAK**

Giltza batzuk galdu ditut DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdu dut. Aurkitu baduzu deitu zerbaki honetara. 608 566 683.

Duela 8 urtetik etxean genuen berde eta laranja koloreko Agaporni txori bat desagertu zaigu. Inork aurkitu badu, deitu dezaldea 667 299 223 telefono zenbakira

Bi aulki 0 - 1 urtekoak, "chicco" markakoak saltzen ditut. Nahiko berriak. Tel. 676 39 89 33.

Hiru plazako eta bi plazako sofaak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziaigarri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure masakota pasatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatzearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurriari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburukak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene- netik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

**Telefono interesgarriak**

- Udala.....943 371 951
- Atez ateko bulegoa.....900 776 776
- Udalzaindaria.....943 361 112
- Udal zerbitzuak (Brigada).....943 370 148
- Sexu Aholkularitza Gunea.....697 919 516
- Gizarte Zerbitzuak.....943 377 110
- Diputazioa - Basetxea.....943 361 215
- Bake Epaitegia.....943 372 336
- Udarregi Ikastola.....943 361 216
- Haur Eskola.....943 374 061
- Zubietako Lanbide Eskola.....943 364 600
- Zubietako Herri Batzarra.....943 372 077
- Hastapen tailerrak.....943 360 465
- KZgunea.....943 023 684
- Oiarde Kiroldedia.....943 372 498
- Sutegi Udal Liburutegia.....943 360 692
- Zumarte Musika Eskola.....943 371 594
- Etumeta AEK eskaltegia.....607 609 379
- Kalezar Eguneko Zentroa.....943 365 249
- Gure Pakea Zahar Egoitza.....943 368 770
- Gure Elkarte Zahar Egoitza.....943 371 751
- Arrate Zahar Egoitza.....943 366 340
- Usurbilgo Salbatore Parrokia.....943 361 239
- Noaua! Kultur Elkarte.....943 360 321

- Abere-Landare Babeslea.....943 376 650
- Taxia (Angel).....607 928 770
- Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....677 373 466
- Eusko Tren.....943 470 976
- LurraldeBus.....943 000 117
- Korreos - posta zerbitzua.....943 362 894
- Anbulategia.....943 362 013
- Oa botika.....943 376 076
- Iturralde botika.....943 363 395
- DYA.....943 464 622
- Gurutze Gorria.....943 272 222
- Emergentziak.....112
- Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016
- Gonzalez Ehorztetxea.....943 362 163
- Gipuzkoa Donostia Kutxa.....943 361 202
- Euskadiko Kutxa-Laborala.....943 364 740
- Banco Guipuzcoano.....943 370 006
- Banco Popular Español.....943 370 411
- BBVA.....943 377 155
- Caja Rural Kutxa.....943 368 842
- Argindarra - Iberdrola.....901 202 020
- Gas naturala - Naturgas.....902 123 456
- Telefonica.....1004
- Euskaltel.....900 840 840

**Goardiako farmaziak** **Maiatzak 14-maiatzak 24**

- Osteguna 14** RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte
- Ostirala 15** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte
- Larunbata 16** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
- Igandea 17** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte
- Astelehena 18** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
- Asteartea 19** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte
- Asteazkena 20** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

- Osteguna 21** URUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte
- Ostirala 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte
- Larunbata 23** URUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte
- Igandea 24** URUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elcano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87 22:00 - 09:00

# Agenda maiatza

## 15 ostirala

- **III. Sagastiak Loretan: San Ixidro Eguna.** (Ikus azpian, egitaraua).
- **Bilera: Usurbil Cup 2015.** 19:00etan Potxoenean.

## 16 larunbata

- **Pintxotxotx solasaldia** EHBilduko hautagaiekin. 12:30ean Sutegi aurrean.
- **#Kilometroak15: "Aamen bea" herri antzezlan.** 19:00etan Sutegin.

## 17 igandea

- **Sagardo Eguna.** Ikus gehigarri berezia.
- **Kilometroak15 tonbola.** 11:30-19:30. 18:00-19:00, Mikel Laboa plazan, Argilan parean.
- **Presoen eskubideen aldeko giza-katea eta txotx berezia.** 13:00, Mikel Laboa plazan.

## Jantzi berriekin aterako dira erraldoi eta buruhandiak San Ixidro egunean

Inauteri Festa eguna salbu, negua itzalpean igaro ondoren, kalera irteteko prest dira erraldoi eta buruhandiak. Itxura berrituta ekingo diote datorren kalejira denboraldiari. Iruditan dituzuen erraldoiak jan-tziz aldatu dituzte Usurbilgo Konpartsako kideek. Itxura berria, ostiral honetan ezagutuko duzue, San Ixidro Egunez. Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa kalejiran irtengo da, arratsaldeko 18:30etik aurrera.

### Maiatzak 15, ostirala

10:30 Meza. Ondoren, hamaiketako eta herri kirolak frontoian.  
14:00 Bertso bazkaria Artzabalen. Txartelak maiatzaren 12ra arte eros zitezkeen.  
18:30 Kalejira erraldoi konpartsarekin.

### Herri antzerkia Sutegin, Sagardo Egunaren bezperan

#### Maiatzak 16, larunbata

- Arratsaldeko 19:00etan Sutegin.
- Sarrerak 3 eurotan salgai, Lizardin eta Txirris-tran.
- 'Aamen bea'-ko aktoreak: Maitere Alkorta, Kerman Errekondo, Mikel Alkorta, Alberto Pikabea, Pako Agudo, Mikel Elexpe, Paulino Ibargoien eta Iñaki Agirresarobe.
- Antolatzailea: #kilometroak15



Erraldoi konpartsaren kalejira arratsaldeko 18:30ean hasiko da.

### Txosna gune bizia Mikel Laboa plazan, Sagardo Egunean

#### Maiatzak 17, igandea

- Egunean zehar, jan edana, talogileak, mariskada eder baten errifa salmenta eta zozketa...
- 13:00 Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea eta giza-katea Askatasuna plazako bolatoki gaineko terrazara. Han txotx berezia, herriko presoez oroitzeko.
- 18:00 Izeberg taldekoen kontzertua.
- Ondoren, erromeria Erokomei taldekoekin.

### Datozenak

#### Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa Bihurri ludotekan

##### Maiatzak 20 asteazkena

Ordua: 17:30.

Tokia: Bihurri ludoteka.

Nori zuzendua: 0-4 urte artekoak.

Antolatzailea: Bihurri Ludoteka.

#### III. Sagastiak Loretan:

##### sagastien zaintza ikastaroa

##### Maiatzak 23, larunbata

9:00etan Potxoenean. Bideratzailea: Aitor Etxeandia, Nekazaritza Ingeniaria.

#### III. Sagastiak Loretan:

##### Bertsokata-ren aurkezpena

##### Maiatzak 23, larunbata

19:00 Bertsokata egitasmoaren aurkezpena. Bertso saio baten barruan sagar muztio eta sagardoa dastatzen ikastea, Guillermo Castaños enologoaren laguntzarekin. Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariekin.

#### Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea

##### Maiatzak 31, ostirala

"Gipuzkoa Bertsotan" udazkenean hasiko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako sailkapen fasea. 11:30ean lehen saioa Sutegin, 17:30ean bigarren saioa Sutegin.

Asier Azpiroz ere ari da partehartzen. Idiazabalgo saioan nagusitu zen, orain astebete.

 **Zuri Arrain**  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA  
zuriarrainiturgintza@gmail.com

**ESKAIOLA eta PLADUR**  
Joxean Elorza  
**699426042**  
USURBIL

**ELORZA**  
O BRAK ETA  
ERREFORMAK S. L.

**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



Ondo pasa  
Sagardo  
egunean!

# SAIZAR

JATETXEA

## KARTA ETA MENU BEREZIAK



SAIZARJATETXEA.NET ERRESERBAK: 943 36 22 28 (IGANDE GAUA ETA ASTELEHENA ITXITA)

**g!LUNK**  
KILOMETROAK 2015 USURBIL



### Sagardo Egunean (maiatzak 17)

- Tokia: argilanen parean • 11:30-19:30 Helduentzako tonbola berezia: 18:00-19:00
- Opari bereziak: bizikleta, errealeko baloi eta kamiseta sinatuak, telebista, afariak, Pirritx, Porrotx eta Marimototxean opariak, koadroak, nekazal etxean asteburua...

# URDAIRA



## Sagardotegia

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

### 943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



# LARRE-GAIN

## DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 3ra  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa

Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

943 36 12 29



Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)



# ELUTXETA

## SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



## SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39  
USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

### 943 37 39 95

(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

## SAGARDOTEGIA

# aginaga

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

### 943 36 67 10

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

### Tel: 943 365 031

Santuenea